

7

GIDA DIDAKTIKOA:

TELEPINU (TURKIAKOA)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	14. or.
Bibliografia	20. or.
Egileak	21. or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioanaturako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak. Haurren esperientzietatik hurbil dauden gertakarien informazioak ulertzea; irratiko zein telebistako berriak bereziki. Ahozko testuak ulertzeko estrategiak garatzea, hala nola, hipotesiak egitea, ideia nagusia eta informazio zehatzak identifikatzea.
	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarriketetan euskaraz parte hartzea, koherentzia, elkarriketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzekeak, bai ezagutzak eraikitzekeak. Berdinen arteko elkarriketa ikasteko tresna bezala erabiltzea. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioanaturako testuetan informazio zehatzak ekoiztea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentzia, egoeraren ezaugarriak errepertuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarriketak, bakarriketak, deiak, oharrak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea erakustea eta laguntzako jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioaz baliatzea, ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioanaturako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola gonbidapenak, zorientzeak, oharrak eta deiak. Haurren esperientzietatik hurbil dauden gertakarien informazioak ulertzea; berriak bereziki. Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: webguneetako azalpen egokiak. Irakurketa ozena egitea antzerkia prestatzeko, ahoskatzeaz, intonazioaz eta erritmo egokiaz hausnartuz.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikazio eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentzia, egoeraren ezaugarriak errepertuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Landutako testuak identifikatzea: antzezipena eta azalpena. Landutako testuen egitura identifikatzea: antzezipenaren sekuentziak. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeke eta adierazteke, hala nola krokisak.
Literatura-hezkuntza	Mota guztietako testu literarioak irakurtzea eta entzutea, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa zein hizkuntza aberasteko baliabide gisa.	Haurren intereserako egokiak diren ahozko testuak entzutea. Haurren intereserako eta adinerako egokiak diren testuak antzezipena.
	Irakurzaletasuna garatzeko testuak irakurtzea.	Ikastetxeko liburutegia erabiltzea. Irakurle autonomoa bilakatzeko, gustuko liburuak aukeratzeko irizpideak sortzea.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko ezberdintasun esanguratsuenak bereiztea. Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei errepertuz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea: akotazioak.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemari buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazioko unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzeko: harridura-marka, galdera-marka, puntua, marratxoa eta parentesia. Oinarrizko arau ortografikoei begirunea izatea. Ekintzaren zirkunstantziak adierazteke baliabideak: hitzak eta esapideak. Objektuek espazioan duten kokapena eta ibilbidea adierazteke baliabideak.

EKINTZAK:


Egin kondairaren laburpena, irudiak eta testuak erlazionatuz:



Bazen behin Telepinu jainkoa. Baina, egun batean, haserretu egin zen, eta alde egin zuen.



Neguak luze iraun zuen. Zuhaitzak eta lurra hotz zeuden. Ez zegoen fruiturik jateko.




Orduan, erlea bidali zuten.

Haziak ernamuindu egin ziren, eta jendeak janari nahikoa izan zuen.



Erleak eztenkada batez esnatu zuen. Telepinu biziki haserretu zen, eta korrika hasi zen.



Korrika egitean, lurrak harrotu zituen. Hasieran, hautsa baizik ez zen ikusten, baina...



...ondoren, lurra erabat prest geratu zen ereiteko.

Telepinu jainkoak lurra landuz gero, haziak ernamuindu egiten dira, kondairaren arabera. Kontatzen den guztia ez da asmatua, erleek naturan lan handia egiten baitute. Baina zein da erleen eta, oro har, intsektuen lana, zeregina, fruituen eta uztaren sorreran? Eta haizearena? Emandako irudiak erabiliz, ahalegindu naturan gertatzen den prozesua ordenan jartzen, eta idatzi ondoren.

Hori egin baino lehen, erabili behar duten testua zein irudi multzoa ezagutaraziko dizkiegu. Horretarako, ondoren agertzen diren hitz eta enuntziatu batzuk osatu behar dituzte, dagozkien irudiekin erlazionatuz.



Batzuetan, testuetan **letra** bat edo **hitz** bat falta da. Hala ere, guk asma dezakegu. Horretan jardungo dugu, ea asmatzen duzuen!



HA _ IA



Insektuak p _ _ _ _ _ loretik hartzen du.



ER _ AMU _ NDU




Insektuak polena lore barruan u _ _ _ _ _ du.

Landareak h _ _ t _ _ dira.



Polena l _ _ _ barruan **obuluarekin** nahasten d _ .



G _ _ _ A




HAI _ EA

Z _ h _ tza l _ rez beteta
da _ o.



G _ _ _ _ bilduta d _ go.



H _ _ _ _ a kanpora atera d _ .



H _ _ _ _ ak haziak er _ m _ ten
d _ _ u.

Gizakiek garia biltzenen dute.



Intsektuek polena hartu, eta eraman egiten dute.



Kanpora!



Hodeiak ura ematen die.



Uztaren emaitza!




Intsektuek polena hartu, eta eraman egiten dute.

Ernamuindu ondoren, hazi egiten dira.



Hazia ernamuindu da.



Haizeak zuhaitz batetik bestera eramaten du polena.


Eguzkiaren beroak eta urak laguntzen diete hazten.





Garia prest dago. Uzta-garaia da.



Polena lore barrura sartu, eta **obuluarekin** nahasten da.



Zuhaitza lorez beteta dago.




Uzta-garaia da.

Irudiak eta testua ulertu ondoren, moztu itzazue irudiak eta adieraz ezazue hazi baten prozesua, fruitu bilakatu artekoa.

Horretarako, jarraitu honako pauso hauei:

► ARGITU IDEIAK ETA JARRI ORDENAN: IDEIAK BURUAN ARGI
IZANEZ GERO, ZEUEK ERARA ONDO ADIERAZ DITZAKEZUE. ADIBIDEZ:




Eguzkiaren eta euriaren laguntzaz, haziak ernamuindu egiten dira. Lur azpitik kanpora ateratzen dira, eta landarea handitu egiten da.

Orduan, loratu egiten dira, eta loreetan polena dago. Polena lore batzuetatik besteetara pasatzen da, intsektuen edo haizearen laguntzaz. Polena lore barruan sartzen da, eta obuluarekin nahasten da. Hilabete batzuk igaro ondoren, lorea fruitu bilakatzen da. Eguraldia ere oso garrantzitsua da.

Hona hemen fruitu batzuk: garia, sagarrak, meloiak... Fruitu horiek jateko biltzen ditugu gizakiok.

Ziklo hori urtero errepikatzen da.

Eta hazia nondik sortu zen? FRUITU BARRUTIK. (Buka ezazue prozesua adierazten).



Fruituetan, landare-haziak daude, lurrera erortzen dira, eta, ereiten direnean, beste landare bat sor daiteke.

Eguzkiaren eta euriaren laguntzaz, haziak ernamuindu egiten dira. Lur azpitik kanpora ateratzen dira, eta landarea handitu egiten da.

Ziklo hori urtero errepikatzen da.

Eta lehenengo hazia nondik sortu zen?


Hona hemen lau prozesu ezberdin adierazten dituzten irudiak. Aukera ezazu bat, eta pentsa ezazu nola adieraziko zenukeen hitzen bidez. Ondoren, zeure ikaskideei adierazi behar diezu, baina aukera dezakezu kondaira moduan kontatzea, hau da, aukera dezakezu fikziozko eran ala errealitateari eutsiz kontatzea.




1.a



2.a



3.a



4.a

AUKERATU DUZUN PROZESUAREN ADIERAZPENA PLANIFIKATZEN:

1. ideia

1. irudia

2. ideia

2. irudia

3. ideia

3. irudia

4. ideia

4. irudia

5. ideia

5. irudia

6. ideia

6. irudia

7. ideia

7. irudia

8. ideia

8. irudia

TELEPINU

(Lamia kobazuloan dago, ogi zati bat eztiz estaltzen eta jaten).

(Kobazulotik irten da, eta jaten jarraitu du).

(Erle bat igaro da, eta Lamiak agurtu egin du).

LAMIA: Kaixo, zer moduz?

ERLEA: Kaixo!

LAMIA: Nora zoaz?

ERLEA: Erlauntzera. Gaurkoz, amaitu dut lana. Gainera, laster ilunduko du, eta ezin gara kanpoan ibili.

LAMIA: Guk, berriz, gauez ibiltzea oso gogokoa dugu.

ERLEA: Ondo pasa eta zintzo ibili!

LAMIA: Bai, ez dut bihurrikeriarik egingo; lagunekin biltzeko geratua nago.

ERLEA: Beste lamiekin?

LAMIA: Ez, haurrekin.

ERLEA: Umeak ez dira gauez ibiltzen.

LAMIA: Badakit. Ume haiek telebistan ikusiko naute. Eta nik kondaira bat kontatuko diet.

ERLEA: Entzun dezaket?

LAMIA: Bai, hala nahi baduzu. Nire aldetik, ez dago arazorik, baina erlauntzean ez dira kezkatuko?

ERLEA: Asko gara, eta ez dira konturatuko.

LAMIA: Orduan, primeran. Kasualitatez, gaurko kondairako pertsonaia bat erlea da, erle jakintsua.

ERLEA: Aizu, kobazuloan sartuko gara? Gaueko hotzak ez baitit onik egiten.

LAMIA: Egia! Gainera, kobazuloan daukat liburua, eta hurrei erakutsi nahi diet.

Goazen barrura!

(Kobazuloan sartu dira. Erlea eroso jarri da, eta Lamia liburu baten bila joan da).

ERLEA: Eta haurrak? Non dira?

LAMIA: Telebistaren beste aldean. Zuk ezin dituzu ikusi, baina haiek gu bai.

LAMIA: (Liburu bat eskuan duela). Zerbait edan nahi duzu?

ERLEA: Ez, kondaira entzun nahi dut.

LAMIA: Tira ba, hasi egingo naiz.

(Lamiak kamerari begiratu dio, eta kontatzen hasi da).

LAMIA: Kaixo, hemen naiz berriro, kondaira bat kontatzeko prest.

LAMIA: Kaixo, hemen naiz berriro kondaira bat kontatzeko prest. Gaurkoa jainko bati buruzkoa da, Telepinu jainkoari buruzkoa. Duela aspaldi asmatua da, eta badakizue nola heldu zaigun? Idatzi egin zuten, baina ez pentsa zuek ezagutzen dituzuenak bezalako liburu arrunt batean, ez horixe! Buztinezko xafletan idatzia agertu zen.

LAMIA: (Buztina hartu, eta lantzen hasi da). Bada, izan ere, papera asmatu baino lehen, beste euskarri batzuk erabiltzen zituzten idazteko. Lehen idatziak buztinezko xafletan eginak izan ziren.

(Buztinezko xafla erakutsi du, eta eskuan ziri bat darama).

LAMIA: Buztina lau-laua eta biguna zegoenean, ziri batekin idazten zuten; ondoren, egosi eta gorde! Harrigarria, ezta?

LAMIA: Bada, horrelako liburuak badira, eta, haiei esker, gauza asko ezagutu ditugu. (Munduko maparen aurrean).

LAMIA: Idazteko modu hau ekialdean erabili zuten, Mesopotamiako lurraldean, Eufrates eta Tigris ibaien artean dagoen lur-eremuan.

LAMIA: Buztinezko oholak hauskorak direnez gero, ez dute osorik iraun. Batzuetan apurtu egin zirelako eta besteetan higatu egin zirelako.

(Ohol batzuen argazkiak erakutsiz).

LAMIA: Begira itzazue, puskatuta daude. Hori dela eta, ikertzaileek buruari asko eragin behar izan diote, falta dena asmatzeko.

LAMIA: Nola? Logikari jarraituz, aurreko zatietan zer dagoen idatzia kontuan hartu, eta, hutsunearen ondoren datorrena ikusita, falta dena asmatu egin dute. Zuek ere egiten dituzue horrelako ariketak. Proba bat egingo dugu. Ea ba: nik zerbait idatziko dut, eta zuek asmatu egingo duzue.

(Lamiak zerbait idatziko du. Ondoren, buelta emango du, eta kamerari erakutsiko dio).

LAMIA: (Uniberts__ hitz zatia erakutsiz). Hau ikusten baduzue, berehala konturatuko zarete zein hitz izan daitekeen.

ERLEA: Utzi pentsatzen! Mmm,...

ERLEA: Zuek ez dakizue? Bada, nik uste dut “unibertso” hitza dela!

LAMIA: A, bai, oso ondo! Primeran!

LAMIA: Beste adibide bat jarriko dizuet.

(Lamiak zerbait idatziko du. Ondoren, bueltatu egingo da, eta kamerari erakutsiko dio).

LAMIA: Jota, a, i, n, k ...aaa! Oraingoan zein hitz izan daiteke?

ERLEA: E, mm! Jainkoa!

LAMIA: Oso ondo, mutil! Baina utzi hurrei esaten; bestela, zu bakarrik jolastuko zara!

LAMIA: Beste adibide bat jarriko dizuet, zailagoa orain, e?

(Lamiak zerbait idatziko du. Ondoren, buelta emango du, eta kamerari erakutsiko dio).

LAMIA: (Beh_n bat_an hitzen zatiak erakutsiz). Oraingoan, bi hitz dira. Zer, oraingoan ez duzu ezer esango?

ERLEA: Ba, ez, ez! Zain nago ea hurrek zerbait esaten duten.

ERLEA: Begira, mutiko horrek zerbait esan du.

LAMIA: A, oso ongi! “Behin batean” hitzak dira.

LAMIA: Beno, proba bat egingo dugu. Ezetz jakin zer jartzen duen hemen!

“Beh_ _ _ _ _ean, uniberts_ _ _ _ _ j_ _ _nkoak elkar_ _ _ _ _ zi_ _ _ _ _”

LAMIA: (Offean). “Behin batean, unibertsoko jainkoak elkartu ziren”. Besteak beste, Telepinu zegoen. Hari esker, landareek fruituak ematen zituzten urtero. Bilera hartan ziren, halaber, Telepinuren aita, erauntsiaren jainkoa, eta Telepinuren ama, Hannahannas.

(Unibertsoko jainkoen bilera).

LAMIA: (Buztinezko oholak erakutsiz). Ez dakigu zergatik, baina Telepinu asko haserretu zen. Izan ere, ez dugu istorio osoa ezagutzen, agiria apurtuta baitago, ikus dezakezue.

LAMIA: Esan bezala, Telepinu sutan jarri zen, eta alde egin zuen.

LAMIA: (Offean). Ondorioak ezin txarragoak izan ziren gizakientzat. Izan ere, landareak zimeldu egin ziren, eta gizakiak gosetu eta ahuldu.

LAMIA: (Lainoen artean). Lainoa nagusitu zen, eta, ondorioz, isiltasuna.

(Jainkoen bileran).

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Telepinu aurkitu behar dugu, gizakiak goseak akabatzen ari dira eta. Hau hondamendia!

HANNAHANNAS: Nola aurkituko dugu? Ez dago haren arrastorik, ez du inork ikusi!

ERAUNTSIEN JAINKOA: Arranoa bidaliko dut, bista zorrotza du eta. Hark aurkituko du, haranik sakonenean badago ere.

LAMIA: Esan eta egin. Erauntsiaren jainkoak arranoa hartu, eta ...

ERAUNTSIAREN JAINKOA: (Arranoari). Zoaz, eta aurki ezazu Telepinu.

LAMIA: (Offean). Arranoak lur guztien gainetik egin zuen hegan, baina alferrik.

Itsasoak eta ibaiak arakatu zituen arren, ez zuen Telepinu ikusi.

LAMIA: (Offean). Arranoa itzuli zenean, jainkoak areago kezkatu ziren.

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Arranoak ez du ikusi, hau zoritxarra! Non ote da?

ERAUNTSIAREN JAINKOA: (Oihuka). Telepinu, arren! Itzuli!

ERAUNTSIAREN JAINKOA: (Oihuka). Telepinu, erruki zaitez. Atera gaitzazu hondamendi honetatik! Ezin gara zu gabe bizi!

HANNAHANNAS: Alferrik ari zara. Beharbada, lotan dago, eta ez du entzuten.

HANNAHANNAS: Baina aurkitu egin behar dugu; bestela, gureak eta gizaki guztienak egin du!

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Aurkitu? Nola? Arranoak aurkitu ez badu, ez du beste inork aurkituko! Ez horixe!

HANNAHANNAS: Badakit! Erlea bidaliko dut.

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Ez esan lelokeriarik! Erlea? Ez barrerik eragin! Erlea!

HANNAHANNAS: Bai, erlea. Zuk uste ez baduzu ere, oso argia da, aditu? Bai, horixe egingo dut!

LAMIA: Eta, hala, Hannahannasek erlea bidali zuen Telepinuren bila.

(Hannahannas erlearekin).

HANNAHANNAS: (Erleari). Zoaz, eta aurki ezazu Telepinu. Lotan badago, eztenkada batez esnatuko duzu. Ondoren, begietan ezkoa isuri, eta, begietan igurtziz gero, izutzen duen amorrua desagerraraziko duzu. Aditu?

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Ja, ja, ja! (Iseka). Zoaz, eta aurki ezazu Telepinu. Lotan badago, eztenkada batez esnatuko duzu. Ondoren, begietan ezkoa isuri, eta, begietan igurtziz gero, izutzen duen amorrua desagerraraziko duzu. Aditu?

HANNAHANNAS: Utzi bakean, ikusiko duzu nola lortzen duen.

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Baaa, inozoa izan behar da, gero, erle bat Telepinu aurkitzeko gauza dela pentsatzeko. Kia!

HANNAHANNAS: Ez gogaitarazi, mesedez. Ez dugu ezer galduko, eta, sinets iezadazu, erlea oso argia da!

ERAUNTSIAREN JAINKOA: Ja, ja, ja! (Iseka). Sinets iezadazu, erlea oso argia da! Ja, ja, ja!

ERLEA: Ez duzu sinesten? Ba, ikusiko duzu!

LAMIA: Erlea Telepinuren bila joan zen. Arranoak bezala, itsasoak eta ibaiak zeharkatu zituen, mendi-gailurren gainetik hegan egin zuen, baina alferrik. Orduan, haran sakonetan murgildu zen, eta, hara non, zelai ilun batean aurkitu zuen.

LAMIA: Erleak Telepinurengana jo zuen, eztenkada batez esnatu, eta begietan ezkoa isuri zion.

(Telepinuk ezkoa igurtzi du, begiak zabaltzeko. Ezkoa kendu duenean, erlea ikusi du).

TELEPINU: (Oso haserre). Nola ausartzen zara eztenkadaka esnatzen? Ken zaitez nire begien aurretik, zapaltzea nahi ez baduzu!

ERLEA: Zure ama Hannahannasek bidali nau. Itzuli egin behar duzu. Joan zinenetik, lurrak antzu dira: ez dago landaririk, ez dago lorerik, ez dago janaririk.

TELEPINU: (Oso haserre). A bai? Emango dizut nik, harrapatzen bazaitut.

ERLEA: (Ihesi). Agindu didatena besterik ez dut egin. Ez zaitez horrela jar!

TELEPINU: Ez joan, ez joan, harrapatuko zaitut!

LAMIA: (Erleari). Erleak ihes egin zuen, Telepinuk atzetik jarraitzen ziola.

ERLEA: Ai, gizagaixoa! Eta, harrapatu zuen?

LAMIA: Ez. Erlea Telepinu baino txikiagoa zen, eta azkarrago mugitzen zen.

Telepinuk, erlea harrapatu nahian, lurrak harrotu zituen eta ibaietako urak zabaldu.

ERLEA: Eta harrapatu zuen?

LAMIA: Bai zera! Ezin izan zuen.

ERLEA: Banengoen ni! Erleak oso azkarrak gara!

LAMIA: Bai horixe! Erlea harrapatu nahian, lurra landu zuen, nahi gabe, eta landareak ernaldtu egin ziren.

ERLEA: Eta haserrealdia pasatu zitzaion?

LAMIA: Bai.

TELEPINU: (Oihuka). Nola ausartu zarete ni esnatzen? Nork esan dio erleari ni ziztatzeko? E? Nork, nork esan dio?

JAINKOAK: Erruki zaitez gurekin, mesedez! A, a, a! Kamrusepas! Kamrusepas!

LAMIA: Jainkoak beldurtu egin ziren, eta atzera egin zuten. Orduan, Kamrusepasek, magiaren jainkosak, lasaitu asmoz, opari batzuk eskaini zizkion.

KAMRUSEPAS: O, Telepinu! Hona hemen urkiaren lurrina, zure bihotza lasaitzeko.

KAMRUSEPAS: O, Telepinu! Hona hemen galburua, zure bihotza indartzeko.

JAINKOAK: Bihotza indartzeko!

KAMRUSEPAS: O, Telepinu! Hona hemen sesamoa, zure bihotza kontsolatzeko.

KAMRUSEPAS: O, Telepinu! Jan itzazu mahats hauek, zure bihotza eztitu dadin.

LAMIA: Telepinuk opariak onartu zituen, eta bihotza baretu egin zitzaion. Gainerako jainkoak eta jainkosak biziki poztu ziren.

HANNAHANNAS: Ez zara gehiago joango!

TELEPINU: Ondo da, ama, ez naiz gehiago joango.

(Kobazuloan).

ERLEA: Eta ez zen berriro joan?

LAMIA: Bai, urtero desagertzen da, baina beti itzultzen da. Ezetz asmatu zein den!

ERLEA: Telepinu!

LAMIA: Azkarragoa zinela uste nuen! Ez da, ba, Telepinu. Telepinu sinbolo bat da; badakizu zerena?

ERLEA: Utzi pentsatzen.

ERLEA (Bere baitarako): Urtero desagertzen da, baina itzultzen da; joaten denean, ez dago janaririk, mmm!

LAMIA: (Kamerari). Zuek bai, ezta? Telepinu uztaren sinboloa da. Uzta amaitzen zenean, gaur ez bezala, janari gutxiago zuten gizakiek. Guri ez zaigu hori gertatzen, janariari iraunarazteko modu asko ezagutzen ditugulako.

ERLEA: Ufa! Asko gustatu zait. Baina, orain, lo egitera era joan nahi dut.

LAMIA: Agur, eta ondo lo egin!

ERLEA: Agur. Ikusi arte!

(Lamiak kamerari).

LAMIA: Hauxe izan da dena gaurkoz. Agur!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiaz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiaz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodriguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kueto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

Nahasketak:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:
Ana Urresti

Koordinatzailea:
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1500/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA